

BIZIKIDETZAREN ETA SEGURTASUNAREN ALDEKO ITUNA

1. Irungo bizikidetzaren eta segurtasunaren aldeko akordio politikoa

2019-2023 agintaldian udalean ordezkariak genuen alderdi politikook Irungo bizikidetzaren eta segurtasunaren aldeko itun bat sinatu genuen. Bada, 2023-2027 agintaldia hasi den honetan, alderdi politikoon ustez, beharrezkoa da ituna berritzea, orain ere bat baikatuz hiriek segurtasun, askatasun eta ongizate espazioak izan behar dutela. Era berean, badakigu erronka garrantzitsuak ditugula aurrean. Horregatik, garrantzitsua iruditzen zaigu Segurtasunaren eta Bizikidetzaren aldeko Ituna berrikusi eta eguneratzea, alderdi politiko guztien adostasunarekin eta elkarten parte hartzearekin giroa hobetzen jarraitzen laguntzeko ekimenak (prebentziozkoak, polizia eta judizialak) aurrera eramateko.

Gure ustez, bizikidetzaren eta segurtasuna oinarritzeko eskubideak dira, baita ezinbesteko baldintza ere hirian gutxieneko bizi kalitatea bermatzeko. Itun honek paradigma aldatzea ekarri behar du, eta ulertu behar dugu arazoa ez dela Poliziaren lanaren bidez konpon daitekeen arazo huts bat; aitzitik, zeharkako politikak behar ditugu, kausei heltzeko eta zerbitzu publikoen jardun integrala egituratzeko.

Gaur egun, ulertu behar dugu zera dela herritarren segurtasuna: botere publikoen eta herritarren arteko jardun integratua bizikidetzaren baketsua izan dadin, indarkeria desagertu dadin, bide eta espazio publikoak modu baketsu eta ordenatuan erabili daitezkeen eta, oro har, pertsonen eta ondasunen kontrako delitu eta arau hausterik gerta ez dadin. Testuinguru horretan, herritarrek ere segurtasuna eta bizikidetzaren hobetzeko eragile izan behar dute, eta horretarako, Udalak herritarren segurtasuna hobetzeko sustatzen dituen politikekin konprometitu eta haietan parte hartu behar dute.

Bizikidetzaren eta segurtasunaren aldeko itun honek sinatu zuten alderdi politikoen arteko konpromiso bat berritzen du: bizikidetzaren eta segurtasunaren alorrean jarduteko esparru bat eta hiriko bizikidetzaren eta segurtasunaren hobetzeko printzipio komun eta lehentasun batzuk zehaztu eta adosteko konpromisoa. Bada, horretarako, funtsezkoa da beharrak identifikatzea, haiei behar bezala erantzuteko planen alde egitea eta planok zenbateraino betetzen diren baloratzeko beharrezkoak diren tresnak eskaintzea.

2. Bizikidetza eta herritarren segurtasuna, kohesio sozialerako elementu

Bat gatoz hiria garatzeko politika oro egituratu behar duen ardatza pertsonak eta bizitza osoa garatzeko duten eskubidea direla, baita haien segurtasuna ere.

Horrenbestez, funtsezko hiru elementu hauek osatzen dute hirian kohesio soziala handitzeko itunaren esparrua:

- 1). Prebentzioan oinarrituz errespetuzko bizikidetza lortu nahiak.
- 2). Legez kontrako ekintzak desagerrarazi nahiak, eskubide eta askatasunak murrizten baitituzte eta hiriaren garapenaren kontrako oztopo larriak baitira.
- 3) Herritarrek nahi bezainbat parte hartu ahal izateak.

3. Itunaren oinarriak

Printzipio horietan oinarritutako bizikidetza eta segurtasuna nahi ditugu, bizikidetza eta segurtasuna hiri kohesionatu eta inklusibo bat eraikitzeke helburua lortzeko beste tresna bat izatea.

Honako hauek dira helburu horiek lortzeko oinarriak:

- Kohesio soziala bultzatzea segurtasun faktore den aldetik.
- Zaurgarritasun baldintzetan dauden herritarrak babestea; bereziki, adingabeak, gazteak, emakumeak eta adinekoak.
- Bizi kalitatea hobetzeko eta gizarteratzea sustatzeko programa sozialak ezartzea.
- Segurtasunaren esparruko prebentzio estrategia integralak garatzea, herritarren arteko bizikidetza mantentzeko.
- Segurtasunaren eta bizikidetzaren aldeko kultura garatzea eta hirian inplikaturako eragile guztien erantzunkidetasuna eta parte hartzea areagotzea.

- Hiriko erakundeen eskumenak eta justizia aplikatzeko sistema sendotzea.
- Segurtasun gaiei buruzko informazioaren gardentasuna bermatzea eta herritarrek hura eskuratu ahal izan dezaten ziurtatzea.
- Udal arloek zeharkako lana egitea gatazkak prebenitu eta konpontzeko politikak ezartzeko.

Beharrezkoa da prebentzioa, gizarteratzea eta gizartearen kontzientziazioa lantzea, eta, horregatik, Poliziaren lanetik haratago doazen politika transbertsalak sustatzeko konpromisoa hartzen dugu.

4. Lehentasunak

Prebentzian oinarritutako segurtasun politika egingo dugu, gertakariei aurrea hartuta eta prebentzioaren bidez Poliziaren esku hartzea txikitzeko.

Segurtasun politika prebentibo bat, hezkuntza eta bitartekaritza programetan eta gai sozialetan esku hartzeko programetan oinarritzen dena eta bazterketa sozial edo ekonomikoko kasuak hautematen dituen, egoera horiek delituak egitera bultzatzen baitezakete.

Itunaren helburu nagusia hiriko bizikidetzaren eta segurtasuna hobetzea denez, ahalegin nagusia kolektibo hauekin eta egoera hauetan egin behar dela uste dugu:

- a) Kolektibo zaugarriak. Beren eskubideak aitortu diezazkieten egoera zail batetik abiatzen diren pertsonak dira; bereziki, emakumeak, adingabeak, adinekoak eta delituen biktima izan direnak.
- b) Auzoak eta bizi kalitatea. Lan egiteko (egoera gatazkatsuen diagnostikoak egiteko eta esku hartzeko eta bizikidetzaren eta aisialdi arduratsua sustatzeko plan bereziak idazteko) arreta auzoetan jarri eta herritarren parte hartzean oinarritu behar dugula uste dugu.
- c) Jarduera bereziak. Irun hiri bizi bat da: beronen proiektzioa udal barrutiaz haratago doa, eta etengabeko jende mugimendua du. Hori dela eta, tratamendu berezia eman behar zaie hiri mailako ekitaldiei eta tokiko merkataritzari, inplikaturako aldeak kontuan hartuta.

5. Udaltzaingoa, herritarren zerbitzura

Udaltzaingoa da Udalak Irungo bizikidetza eta segurtasuna hobetzeko duen baliabide nagusietako bat.

Gertutasunean eta ikuskera komunitarioan oinarritutako polizia eredu baten alde gaude: hori da Ituna sinatzen duten alderdiek onartzen duten eredia.

Polizia eredu horrek berekin dakar delituzko egintzen prebentzioan jartzea arreta polizia lanak ulertu eta egiteko eta pertsonak eta komunitatea izatea segurtasun politika ezartzeko eta lehentasunak finkatzeko ardatza. Horrela, eredu horrek Poliziaren eta herritarren arteko elkarrekiko harremanean oinarritu behar du, haien arteko etengabeko elkarrizketan, Poliziaren lana hobetzeko eta herritarrentzat lehentasunezkoak diren arazoak haien parte hartzearekin konpon daitezen bultzatzeko.

Testuinguru horretan, prebentzioa funtsezkoa da, eta, horretarako, funtsean, lanaren xedea aldatu beharra dago: lehen, Poliziak legea betearazi behar zuen, eta legea urratzen dutenengan jartzen zen arreta; orain, berriz, Poliziak herritarren segurtasuna bermatu behar du, arreta gizarte osoan jarriz. Horrela, prebentzioa, bitartekaritza eta gizarteratzearen sustapena funtsezkoak izango dira.

6. Bizikidetzaren eta segurtasunaren aldeko neurriak

Ituna sinatzen dugunok berretsi egiten ditugu Udaltzaingoarentzako markoari, printzipioei, lehentasunei eta ereduari buruzko akordioak. Era berean, jakitun gara beharrezkoa dela lehentasunezkoak ditugun neurriak azpimarratzea.

6.1. Lehentasunezko neurriak

- Topaketarako eta lanerako foro iraunkorrak sortzea auzo elkarrekin, auzoetako gainerako eragileekin eta udal arloetako arduradunekin, hiriko auzo jakin batzuetako kohesio soziala, bizikidetza eta bizi kalitatea hobetzeko ekimenak diseinatzeko. Horretarako, tresna hauek izan behar ditugu:

- Diagnostikoa→ Azterketa egokiak egin ahal izatea, herritarrek segurtasun kontuetan zer-nolako sentazioa duten jakiteko eta topaketarako eta lanerako foro iraunkorren erantzuna hobetzeko. Xedea egoeraren argazki bat izatea eta jarduteko helburu zehatzak finkatzea da.
 - Ekintzak→ Udal arloek (Herritarren Partaidetzak, Gizarte Ongizateak, Kulturak, Hezkuntzak, Gazteriak...) dituzten programa eta planak elkarrekin eta auzo bakoitzaren errealitatera egokituta ezarri ahal izatea, beharren arabera. Helburua arazoak berariaz eta espezifikoki tratatu ahal izatea da, sortzen diren beharretarako erantzunak pertsonalizatuta.
 - Balorazioa→ Ekintzen emaitzak sei hilean behin ebaluatu eta diagnostikoak finkatzen dituen helburuak betetzen diren ikusteko jarraipena egin ahal izatea.
- Segurtasunaren eta Bizikidetzaren aldeko Batzorde Iraunkorra berritzea. Hiru hilean behin egingo ditu ohiko bilkurak, eta honako hauek osatuko dute:
- Zenbait arlotako (Gizarte Ongizateko, Obretako, Hiri Bultzadako, Hezkuntzako, Berdintasuneko...) teknikariek.
 - Udaltzaingoko eta Ertzaintzako arduradunek.
 - Gizarte eragileek (auzo elkarteek, merkatari eta ostalarienek, emakume taldeek).
 - Udalean ordezkariak duten alderdi politiko guztiek.

6.2. Neurri orokorrak

Hiria eta kohesio soziala hobetzeko ekintzak

- Auzo jakin batzuetan eraldaketa txikiak egiteko plan bat diseinatzea, eremu batzuen diseinua, itxura eta argiztapena hobetzeko, puntu beltzak identifikatuz eta haiei helduz.

- Auzoetako kultura plan bat jartzea martxan, ohikoak ez diren lekuetara iritsiko diren jardueraz osatutakoa, eta ohiko jardueren ibilbideetan leku berriak sartzea.

Polizia lana

- Udaltzaingoaren berrantolaketa estrukturalari ekitea, auzoko edo gertuko polizia ereduak planteatzen dituen beharretara egokitzeko.
- Zerbitzuaren kalitatea hobetzea eta, horretarako beharrezkoa bada, biztanleko polizia kopurua handitzea.
- Itun hau sinatu eta urtebete gehienez ere segurtasun plan estrategiko bat prestatzea, ituna garatzeko eta martxan jartzeko beharrezkoak diren plan, protokolo eta prozeduren eta beharrezkoak diren gainontzeko ekintzen helburuak, epeak, xedapenak eta ezarpena zehazteko eta urte anitzeko prestakuntza plan bat prestatzea gertuko polizia eremuan parte hartzen duen plantilla osoarentzat.
- Bitarteko materialak modernizatu eta hobetzea.
- Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren kaleko presentzia hobetzea, auzoetan giza baliabide eta baliabide material gehiago jarrita, delituei buruz biltzen diren datuen arabera betiere.
- Ertzaintzarekin esparru akordio berri bat egitea.
- Hiriko segurtasun kidego guztiekin ahal bezainbat koordinatzea.
- Eremu publikoan segurtasunik ez dagoen puntuen mapa eta berariazko jarduera programak eguneratzea eta lehentasunezko eremuetan esku hartzeko plan bat diseinatzea.

Ekintza espezifikoak

- Bideko segurtasun plana.
- Aisialdia segurua eta errespetuzkoa izateko ekintza plana.
- Merkataritzaren segurtasunerako ekintza plana.
- Jaietarako eta ekitaldi handietarako plan espezifikoak.
- Zarataren kontrako ekintza plana.

Esparru judizialarekin lotutako ekintzak

- Herritarrek delituzko ekintzak informatu eta salatzen parte hartzeko prestakuntza eta informazio programa.
- Epaitegiekin komunikatzeko bide bat ohiko delitugileen kasuan zigorgabetasunik izan ez dadin.

7. Bizikidetzaren eta Segurtasunaren aldeko Itunaren neurriak eta zehaztapena

Ituna sinatzen dugunok uste dugu Udaltzaingoarentzako marko bat, printzipio batzuk, lehenetasun batzuk eta eredu bat adostu ditugula. Era berean, itunaren printzipioak gauzatzeko beharrezkotzat ditugun hainbat neurri ezarri ditugu. Bada, beharrezkoa da hori guztia plan batean jasotzea, helburu neurgarri eta kuantifikagarri batzuk eta lortu beharreko emaitza batzuk zehaztuta.

Horretarako, Ituna sinatu eta urtebetean gehienez ere, 2024-2028 aldirako Bizikidetzaren eta Segurtasun Plan Estrategikoa prestatu eta onartuko da, herritarren parte hartzearekin.

8. Itunaren indarraldia eta jarraipena

Bizikidetzaren eta Segurtasunaren aldeko Ituna berau sinatzen denetik Bizikidetzaren eta Segurtasun Plan Estrategikoa bukatzen den arte egongo da indarrean.



Sei hilean behin, jarraipena egiteko saio bat egingo da, Bozeramaileen Batzordearen bidez, Udaltzaingoko eta Bizikidetzako ordezkariaren parte hartzearekin.